

Ordizian, 2015eko azaroaren 12an UDALBATZARRAK aparteko eta presazko eta bilkura egin du udaletxe honetako bilkura aretoan.

BERTARATUTAKOAK:

LEHENDAKARIA:

José Miguel Santamaría Ezeiza

BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK:

Angelica Moreno Heras	EAJ/PNV
Bittor Bolinaga Alzelai	EAJ/PNV
Jose Ignacio Iturrioz Gotor	EAJ/PNV
Arantxa Fernandez Alvaredo	EAJ/PNV
Igor Eguren Izagirre	Ordiziako EH Bildu
Belen Maiza Urrestarazu	Ordiziako EH Bildu
Adur Ezenarro Agirre	Ordiziako EH Bildu
Izaro Intsausti Zinkunegi andrea.	Ordiziako EH Bildu
Jon Ander Caballero Zubelzu	Ordiziako EH Bildu
Miren Alazne Sukia Galparsoro	Ordizia Orain
Mª Jesus Soto De Los Santos	Ordizia Orain
Iñaki Dubreuil Churruca jauna	Socialistas Vascos – Euskal Sozialistak

IZAN EZ DIREN ZINEGOTZIAK: Guztiak izan dira.

IDAZKARIA:

Iker Rocandio Etxeberria

KONTUHARTZAILEA:

Jose Luis Aranburu Otegi

AZTERTUTAKO GAIAK

1.- Zerga Ordenantzen aldaketa (hondakinen bilketa tasa)

ORDUTEGIA:

HASIERA: 19:01 etan

AMAIERA: 20:04etan



## 1.- Zerga Ordenantzen aldaketa (hondakinen bilketa tasa)

### Proposamenak

#### Gobernu taldearena

% 30eko igoera, Kontuhartzailearen txostenean jasotzen diren ñabardurekin.

#### Ordiziako E.H. Bildurena

% 10eko igoera.

#### Ordizia Orainena

% 5eko igoera.

### Eztabaida

#### Alkatea

Zerga ordenantzen jorratzeak bere denbora darama. Aurten onartu behar dira, baina haserako onarpenaren eta behin betikoaren artean 30 egun utzi behar dira, alegazioak egin ahal izateko. Hortik urjentziatzko deialdia.

Bi bilera izan ditugu Sasetako mankomunitatearen jerentarekin.

Kontuhartzailearen txostena espedientean dago. % 30eko igoera proposatzen du. Proposamen hori gure egin dugu.

#### Igor Eguren

Kontuhartzaileak proposatzen du igoera gradual bat. Guk proposatu genuen gradualki igotzea, % 5 urtero. Horrek luzeegi joko lukeenez, orain proposatzen dugu % 10 igotzea urtero.

Sasetaren zorrari irtenbidea eman behar zaio, baina oraindik ez dakigu zenbat dagokion Ordiziari ordaintzea. Bestalde, zerbitzuaren benetako kostea ordaindu behar da. Baina ez diegu herritarrei kargatu behar urte askotatik datorren egoera bat. Udalak baditu baliabideak igoera pixkanaka egiteko. Gainera, ez dakigu zer egoera izango dugun datorren urtean hondakinen gaian.



### Mila Sukia

Mantentzen dugu gure proposamena: % 5eko igoera. Nahiz eta horrek ez duen zerbitzuaren kostua estaltzen, % 30ko igoera gehiegizkoa da. Udalak estali beharko du falta dena, bigarren mailako gastuak murriztuz.

Gainera, dauden barietateak direla eta ez dakigu zein izango den, benetan, kostua. Graduala behar du izan eta herritarrak informatu behar ditugu, honen zergatia azalduz.

Si se opta por una subida mayor, habrá que posibilitar el abono de la tasa en dos plazos.

### Alkatea

Con esas subidas, las tasas no van a acoger el coste real del servicio. Lo cubriremos dejando de hacer otras cosas, porque el dinero saldrá de los ingresos ordinarios. Si se hubiesen realizado subidas en años anteriores, como propusimos, no habría que hacerlo así ahora. En cualquier caso, la subida, en euros, no supone tanto.

Lo de pagar en dos veces nos parece bien.

### Iñaki Dubreuil

Hay que regular mediante Ordenanza esa posibilidad de flexibilizar los pagos, para que todo el mundo la conozca y no se actúe caso por caso.

### Kontuhartzailea

Nire txostena ez da proposamen bat. Egoera zehazten dut, ez besterik.

*(Lehen bozketaren ondoren, alkateak etenaldi bat egitea erabaki du)*

### Alkatea

Jarraitzen dugu pentsatzen % 5eko edo % 10eko igoera ez dela nahikoa, Fondo Foraletik datorren ekarpenaren gehiena jango baitu.

### Mila Sukia

Gure proposamena mantentzen dugu eta arrazoiak esan ditugu.

### Igor Eguren



Beste zenbait zerbitzu bezala, hau defizitarioa da. Gure proposamena igo genuen % 5etik % 10era, baina herritarrei % 30 kargatzea oso urruti dago gure kontzeptutik. Ardura politikoagatik, prest gaude % 5aren aldeko bozka emateko, ezer ez igotzea baino hobea delako.

### Bozketa

*Lehenik bilkuraren urjentziazko izaera bozkatu da.*

Bozketa egin ondoren hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 13 (EAJ/PNV 5, Ordiziako E.H. Bildu 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz, Alkate jaunak bilkuraren urjentzia onartutzat jo du.

*Hiru proposamenak bozkatu dira, segidan:*

#### Gobernu taldearen proposamena

Aldekoak: 6 (EAJ/PNV 5, Socialistas Vascos – Euskal Sozialistak 1)

Abstentzioak: 0

Aurkakoak: 7 (Ordiziako E.H. Bildu 5, Ordizia Orain 2)

#### Ordiziako E.H. Bilduren proposamena

Aldekoak: 5 (Ordiziako EH Bildu)

Abstentzioak: 0

Aurkakoak: 8 (EAJ/PNV 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vascos – Euskal Sozialistak 1)

Beraz, proposamena ez da onartu.

#### Ordizia Orainen proposamena

Aldekoak: 2 (Ordizia Orain 2)

Abstentzioak: 5 (Ordiziako E.H. Bildu)

Aurkakoak: 6 (EAJ/PNV 5, Socialistas Vascos – Euskal Sozialistak 1)

Beraz, proposamena ez da onartu.

*Etenaldiaren ostean, bozketa berri bat egin da:*



### Ordizia Orainen proposamena

Aldekoak: 7 (Ordiziako EH Bildu 5, Ordizia Orain 2)

Abstentzioak: 0

Aurkakoak: 6 (EAJ/PNV 5, Socialistas Vascos – Euskal Sozialistak 1)

Beraz, Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



Aztergai gehiago ez dagoenez, Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, eta honako akta jaso da; hori, nik, Idazkariak egiaztatzen dut.

